



BARREN
TOKIKOM

MURKAKKURTE

**Mañukorta
etxeko denean**



Ikasle ohi aipagarriak / Ikasle aipagarria / Elgoibarko ikasle aipagarria / Ikasleen erronka-balio aipagarriak
Eskerrik asko enpresa babesle eta kolaboratzaileei zuen laguntzagatik!

ENPRESA BABESLEAK / EMPRESAS PATROCINADORAS

ENPRESA KOLABORATZAILEAK / EMPRESAS COLABORADORAS



AGME, ALCORTA FORGING GROUP, BERKOA, BRONYMEC, CODESYNTAX, DPH, ECENARRO, ENGRANAJES GRINDEL, ETXE-TAR, FAGOR AUTOMATION, GURUTZPE, HARMONIC DRIVE, IBARMIA, ILS, JUARISTI, LAIP, LAUBERMEKA, MANUFACTURAS HEPYC, MNPFRE ERMUA, MAZA, OJMAR, ONA ELECTROEROSIÓN, PAMPO, RICOH, TECNOMECA, TXORIERRI POLITEKNIKOA, URKOTRONIK.



AMELI ipuin jostune

Ipuinak musikarekin josita

Aurten ipuin artean emango diogu amaiera *Tertuliak* programari. Ikasturtea berbetan eman ondoren, amaieran gure belarriak izango dira protagonistak. Ameliren ipuinak entzungo ditugu. Baina Ameli ez da bakarrik etorriko. Musikari batek lagunduta etorriko da, eta ipuinak musikarekin jantzita gozatuko ditugu.

Ekainak 28, osteguna
19:00

Kultur Etxeko sotoa

Ekitaldia doakoa eta librea izango da.

Barren 25 urte

Ate hori zeharkatzen dutenen arabera tamaina dauka BARRENEK



Ainhoa Mendibil

Zortzi hilabete inguru egin nituen BARRENEKO zuloan lanean. Nire lehen aldia, eta aldi bakarra, ordainpeko kazetari gisa jardun dudana. Eta eskerrak! Tokiko hedabideen herri kazetaritza ezagutzeko komeni baita, kazetaritza ezagutzeko. Edozein lanbidetan bezala teoriatik praktikara saltoa badago, herri hedabideen praktikara da kazetaritza fakultateetako irudikapen topiko guzti horietan gutxien irudikatzen den kazetaritza. Kalekoa, gertukoa, herritarrena. Eta hori nork bere herrian ezagutzeko aukera izatea, zorte handi bat da. Nork bere herria ezagutzeko ere balio baitu, bide batez.

Galdetuko balidate "espero ez zenuen zer ikasi zenuen BARRENEAN lan egindako aldi hartan?" "Elgoibarko herritarren aurpegiak ezagutu nituen" erantzungo nuke.

Pentsatzen da, kanpotik, hamaika mila biztanle inguruko herri batean, albiste beharrezko egongo dela astekari bat, asteko alea nola bete asmatu ezinda. Baina pentsatzen den horren kontrara, zer kendu erabaki beharrezko egoten da BARRENEKO lantaldea asko eta askotan. Hain justu, egunero BARRENEKO zulo horretako atea zeharkatzen duten herritar guztiei esker.

Eta hortxe, hortxe hartzen zaio nire uestez BARRENEKI tamaina. Ate hori zeharkatzen duten pertsonen arabera tamaina dauka BARRENEK.

Ezer espero gabe han lanean hasita, harritu nintzen ni, eta sinetsidazue, harrituko litzateke zuotako edozein, BARRENEKO sartu-irtena ikusiz gero.

Coccolaren anuntzioan bezala, denetarikoez josten dute Merkatu Plaza azpi horretara. Eta pertsona horiei entzunez gero, gainera, ohartzen zara bakoitzari berea ematen diola BARRENEK.

Badago buzoiko pegatina kendu dion eta eskean doan hori, bizilagunen arteko kalapitak kontatzearen bereziki; bere etxebarruko baten abileziaren berri ematera doan familiartekoa, paparra hazi hazita, argazki eta guzti; obrak direla eta edo obrarik ez dela eta Udalarik kexa jarri nahi dion hori, edota Udaletik pasa ere egin gabe zuzenean Udalarik esan beharrezkoak BARRENEKI esatera doan beste hori; partiduen emaitzekin doana; hildakoaren argazkia eskutan eta begian malkoa; haur txikia zorian zuzenean bost orriko eskutitza idatzi duena; BARREN ganoraz iristen ez zaiola kexan doana; edo BARRENEAN agertutako zerbaitez gaztelaniaz azaltzea behar duen hori. Dira horrenbeste eta esan ditut

horren gutxi... Baina eta tartean-tartean, daude besterik gabe, eskerrak ematera doazenak. Hala ere, esango nuke hor lanean diharduen lantalde horrek merezi baino gutxiagotan jasotzen dituela eskerrak.

Ze BARRENEKI esker, lagunok, kalitatez, euskaraz, eta gaurkotasunez herriko gertuko informazioa jasotzeaz gain, Elgoibarrak irabazi ditu informazio bulego bat, Pesako lehiatila, farmazien zentralita, herrian hildakoen eta jaiotakoen bandoa, turismo bulegoa, jaietako programa ibiltaria, doako psikologia zerbitzua, galdutako objektuen bilgunea, euskara ikasteko oinarrizko etengabeko ikastaroa, herritarrentzako argazki sesioak, eta beste mila zerbitzu. Eta dena, dena, dena, euskaraz.

Hori ikusi nahi duenak, ikusi egiten du. Ikusten ez duenak, ez du ikusi nahi.

Eskerrik asko, BARREN.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► EZBERDINAK?

Globalizazioak eta komunikatzeko era berriak, bazter guztietan, bizitzeko era eta ohiturak berdintzera garamatza.

Alde guztietan izango dira, ondarduak eta lapurrak, langileak eta alferiak, aberatsak eta pobreak, ezkertiarak eta eskuindarrak. Gizarte aurreratuen artean egoteko, inizatiba, esfortzua, berdintasuna, elkartasuna, beste balio batzuen artean oinarritutako heziketa ezinbestekoa da. Instituzio, enpresa eta giza elkarteak, funtzionamendu egoki eta garbia izan dezaten, lege eta arau aproposak ezartzean dago diferentzia.

Baina, etorkizunean ezberdin egingo gaituena, gure hizkuntzaren erabilpena da. Eta helburu honek etsai bat du: ohitura.

Gurasoak ume txikiekin bai, baina baita ere, seme-alabak nagusitzen direnean, gure artean horrela jarraitzea. Umetan osatzen diren kuadrillak, gaztetzera eta nagusitzera iristen direnean ez lagatzea. Eta hainbeste esfortzu

kosta zaien hizkuntza bat ikasi duten, eta familiarreko erdalduna duten horiei, behar duten arrazoi eta motibazio guztia ematea zor diegu.

Ispiluaren aurrean jartzen garenean, erabaki behar izango dugu, biharko egunean, ezberdinak izan nahi dugun; eta bai, gure esku dago.

Juanjo Bastarrika

► ZERO ZONA IKUS-ENTZUNEZKO KANALA, BAIETZ 50.000!

GuraSOS elkarteak (Zubietan egiten ari diren erraustegiak guztion osasunean, eta bereziki umeengan, izango duen eraginengatik kezkatuta dauden guraso, aitona-amonak eta osaba-izebek osatzen duten elkarteak) ekainaren 15ean estreinatu zuen aurrerantzean herriari hitza emango dion Zero Zona ikus-entzunezko kanala. Aurrerantzean, ostiralero, albistegi, elkarrizketa edota dokumentalen bat eskainiko dute bertan. Aurreko ostiraleko lehen atalean, Hitzartu prozesua, Europan aurkeztu dituzten ekimen juridikoak, edota maiatza hasieran La-

sarte-Oriako Landaberri Ikastolan herri-tarrekin eginiko jardunaldi egunaz informazioa eman zuen. GuraSOSek berri eman duenez, gune irekien metodologiarekin egindako parte-hartze jardunaldi hartan atera zen kanala hau zabaltzeko ideia. Gaur kaleratuko duten bideoan, medikuen elkargoko kide bati eginiko elkarrizketa, edota erraustegiaren kontratuari buruzko xehetasunak plazaratuko dituzte.

Era berean, GuraSOSek erronka bat betetzen laguntzera animatzen gaitu. "Baietz 50.000!". Zero Zona Kanaleko 50.000 harpidedun eta ikustaldi izatera heldu nahi dute. Bideoa ahal bezain beste zabaltu eta partekatzeko gonbita luzatu digu. (Youtuben dago *ZonaZero Kanala Bideo 1* izenarekin).

A.I.Z.

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskal Lehenen Topagunea</p>	<p>Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR 943 744 112 Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen iritzia, hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola INPRIMATEGIA Geru Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UOLA KUTUNTAMINTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>MENDARO</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>  <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA</p> <p>(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua</p>
--	--	---

Mendaron erabilgarri dago kirolerako eta aisialdirako egin duten gune berria



Mendaron, jolaserako eta kirolerako gune berri bat izango dute hemendik aurrera, Ospitalaren azpi aldean. Oraindik hainbat lantxo - padel kantxa amaitzea, ur txorrotak martxan jartzea, zakarrontziak ipintzea, erabilera anitzeko gune inguruko sarea jartzea...- egiteko badaude ere, jadanik erabilgarri dago.

Gune honek 3.400 metro koadro ditu eta bi zatitan banatuta dago. Lehenengoa kirolera bideratu dute eta bertan izango dira estalitako padel pista, mini-skate-a, erabilera anitzeko kantxa, gimnasiarako hainbat aparatu (padel pistako aterpean) eta automatikoki garbitzen den komuna. Bigarrena, berriz, aisialdirako da. Han, udan jolasteko ur txorrotak, bankoak eta mahaiak eta iturria egongo dira. Bestalde, Andoneikua kaleko aldapan dagoen sarbidea (zig-zag), urteen poderioz hondoratu geratu da gune batzuetan, eta proiektu honetan konponketak egin dira irisgarritasuna errazteko.

Padel kantxaren erreterba

Mini-skate eta erabilera anitzeko pisten zein gimnasia makinak erabilera libre izango da. Padel pista erabiltzeko, ordea, aurrez erreterba egin beharko da udaletxean, frontoia erabiltzeko egiten den bezela. Erabilera noizbehinkakoa bada, Uz-

targin edo Lagun Betikoak tabernetan egin ahal izango da eskaera eta han jaso kantxa irekitzeko giltza eta argia pizteko txanpona. Kirol gune berrian ez dute aldagelarik ipini, baina gertu egonik frontoikoak erabil daitezkeela jakinarazi dute.

Mendarok oinarrizko kirol ekipamendua baduenez (estalitako pilotalekua), ohikoa ez den kirol eta aisialdi gunea eraiki nahi izan dute bizilagun guztiak kirola egiteko aukera izan dezaten herrian bertan. Bestalde, "eskualdeko ekipamenduak ere sustatu nahi dira, esaterako, Elgoibarko kiroldegia, eginiko inbertsioa optimizatuz eta zerbitzuen kudeaketa mankomunatu bultzatuz", esan du Mendaroko alkateak.

Proiektu honen aurrekontua 627.000 eurokoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren 320.000 euroko Leader dirulaguntza jaso du.

Aisialdirako eta kirolerako gune berri honi jarraitzeko proiektuak beste osagai bat izango du aurrerago Goñati eraikinean, gaur egun ludoteka, pediatriaren kontsulta eta anbulategia dau den lekuan. Asmoa da eraikina hustea eta guztia kiroletarako egokitzea. Proiektua martxan da eta momentuz, ludoteka, Azpilgoeta auzoko Zelakua plazara aldatuko dute Udalak han duen eraikina egokitutakoan. Hirugarren solairu horretan, gimnasia eta spinning gelatxo bat jarriko dute; aldagelak eta dutxak behean.

Pintxo lehiaketak epaimahai profesionala izango du aurten



Elgoibarko Pintxo Lehiaketaren hamargarren ekitaldia antolatu du udalak ekainaren 27, 28 eta 29rako. Urteurrenaren aitzakian sukaldaritza munduko bost adituk osatuko dute epaimahaia: Mireia Alonso, gastronomo eta sukaldaritza tradizional eta aprobetxamendu-sukaldaritzan aditua; Aitor Buendia kazetaria, *Slow Food* nazioarteko mugimenduko kidea eta 2017an Euskadiko Gastronomia Sariaren irabazlea; Josema Azpeitia, kazetari gastronomikoa, Basque Culinary Centerreko irakaslea eta Euskadiko Gastronomia Sariaren irabazlea, 2013an; Iñigo Kortabitarte sukaldaria Kobika jatetxeko sortzailea eta *Iron Chef by Makro de Miniature Pintxos* kongresu lehiaketako irabazlea; eta Belaustegi jatetxeko Josu Mugertza sukaldaria.

Udalak ostalaritzan euskararen erabilera sustatu eta Elgoibarko gastronomia sustatzeko helburuarekin antolatu zuen Pintxo Lehiaketa eta hamar urtez izan du segida. Alkateak aurkezpenean esan zuenez, "ostalariek lantzen duten sukaldaritza eskaintza erakusteaz gainera, bezero berriak erakarri eta lortzeko aukera ematen du".

26 tabernak hartuko dute parte eta pintxoa 1,40 euroan salduko dute hiru egunetan 19:00etatik 22:00etara. Hiru saridun izango dira: lehen biak epaimahaiak izendatuak, eta herritarrek tabernetan betetako txartelen arabera aukeratu da herritarren saria. Horien artean bi laguntzako dastatze menua zozketatuko da Belaustegin eta Txankakuako dendetan gastatzeko 150 euroko bonoa.

Sebas Etxaniz etxeratzea eskatuko dute zapatuan

Elgoibarko Sarek ekainaren 23rako, larunbaterako, ekitaldi berezi bat antolatu du Elgoibarren euskal presoen etxeratzea eskatzeko. Ekitaldian Sebas Etxaniz izango dute gogoan. 74 urte ditu eta azken 15 urteotan espetxean dago. Etxanizentzako gainontzeko presoei ematen zaizkien eskubiak eskatu dituzte Saretik: bigarren gradura pasatzea, Euskal Herriko espetxe batera aldatzea eta etxeratzea.

Kalegoen plazan egingo den ekitaldian 11:30etik 12:30era Zumba saioa izango da Elena Rodríguez gidari dela. Bere ikasleak arituko badira ere plazara gerturazten diren herritarrak ere dantzara gonbidatu nahi dituzte.

Bestalde, hainbat artistek mural kolektibo bat margotuko dute 11:30etik 13:00etara. Antolatzaileek deia egin dute artistak lanean ikustera joan dadin jendea, sorpresa izango baita.

Azkenik, Sebasen adina, 74 urte, 7 eta 4 irudikatuz giza-mosakoa egingo dute plazan daudenen artean kartulinak eskutan hartuta eta altxatuta.

'Bultz-e' proiektuak irabazi du Tkgune ideia industrialen lehiaketa

Tkgune Fabrikazioa Gasteentzako Enpresa Industrialen ideia lehiaketako sariak banatu dituzte asteon IMHko Asmaola Lantegian. Trailerren eraginkortasuna eta segurtasuna handitu eta hobetu nahi dituen sistema berritzaile bati esker izan da irabazle Bultz-e proiektua. Igor Aguirre eta Eñaut Eizagirre azpeitiarrek, IMHko ikasle ohiak biak, aurkeztu dute proiektu irabazlea.



Ekintzailtza, lidergoa eta espediente onak saritu dituzte IMHn

J oan zen astean banatu zituzten IMH Sariak ikasturte amaierako ekitaldian. Ikasle ohi aipagarrienen atalean bi sari eman zituzten. Jon Larragaña, Larra Mekanizatu-keko zuzendari-exekutiboak eta Mek-Groupeko Ingeniaritza eta Plangintza arduradun Gorka Oregi jaso zuten saria: Ma-kina Erremintaren Museoko *Besarkada* oroigarria eta bi la-gunentzako talaso-gastronomiko bonua. Espedienterik onena izan dutenek, berriz, 300 euroko poltsa eskuratu dute. Ba-tetik, Goi-mailako Fabrikazio Mekanikoko Diseinua ikasi duen eta Alteycon aritu den Maitane Alberdi izan zen aipatua bere batez-besteko nota 9,64 izan delako. Elgoibarko ikasle aipagarriena, berriz, Eneko Rubio izan da 8ko emaitzarekin. Honek Erdi-mailako Lan Mantentze Elektromekanikoa ikasi du eta praktikak MTEn egin ditu. Erronka eta balioen 5 sari ere banatu zituzten, espezializazio bakoitzeko bat. Lanbide heziketan sustatzen duten identitatea saritu nahi izan dute ikasleek egindako ahalegin, erronka eta balio aipagarrien bidez. Saria 300 eurokoa izan da bakoitzarentzat.

Bestalde, IMHko ikasle Jon Peñak irabazi du CNC fresatze proba EuskoSkills txapelketan. urrezko domina irabazteaz gainera, 2019an Madrilen jokatuko den SpainSkills proban lehiatzeko sailkatu da ikasle zumaiarra. EuskoSkills lehiaketaren helburu nagusia da, Lanbide Heziketaren inguruko kontzientzia osoa sustatzea.



Elgoibarko Udalak 200.000 euro bideratu ditu aurrekontu partehartzaileetara

Herritarrek udalaren jardunean parte har dezaten, prozesu bat jarri du abian Udalak. Horrela, elgoibartarrek beren iritzia eman ahal izango dute eta Udalak 200.000 euro bideratuko ditu herritarrek lehenesten dituzten proiektuak gauzatzeko. Izan ere, zortzi proiektu izango dira lehenetasuna emateko aukeran: Aitzkorri eta Urazandi lotuko dituen oinezkoen pasabidea; aparkatzeko eremuak (Aita Agirre plaza, Trenbide kalea, Uparitzaga, Sigma...) monitorizatu eta informazio panelak jartzea; Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzea; hilotz-hondarrak eta errautsak biltzeko kolunbario bat egitea hilerriaren alde berrian; azokan 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat areto bat egitea eta edoskitzeko gunea egokitzea; haur-parke bat ipintzea Pedro Muguruza 8an; aurrealde huts eta narriatuetan horma-irudiak margotzea; eta Bolatokiko parkea berrurbanizatzea.

Parte hartzeko honako aukerak izango dira ekainaren 30era bitartean: formulario bat bete eta Udal Liburutegian, Jubilatuen Etxean, Kultur Etxean, Herritarren Arreta Zerbitzuan edo Olaizaga Kiroldgian uztea, zein Kalgoben plazako karpetan ekainaren 22an eta 23an 11:00etatik 14:00etara eta 16:00 etatik 19:00etara. Online parte hartzeko aukera ere egongo da www.elgoibar.eus helbidean edo link honetan: <http://udalonink.ibatuz.com/index.php/925734/lang-eu>.

EH Bildu, baina, ez da ados azaldu egitasmo honekin esanez, zazpi urte daramatzatela proposamen zehatzak egiten aurrekontu partehartzaileak sustatu nahian eta ezezkoa jaso dutela beti. Eta iruditzen zaie proiektu honek ez dituela gutxieneko baldintzak betetzen. "Herritarren partaidetza kudeaketa garden eta berri baten oinarria izan behar du, ez betiko eredu zuritzeko", dio EH Bilduk.

Institutuko bost neskak ohorezko matrikula

Argazkian ageri diren Elgoibarko institutuko bost ikasleek, Sara Lili, Julia Ron, Irene Makazaga, Ainhoa Leyaristi eta Haizea Egaña Unanuek, espediente akademikorik onena lortu dute aurtengo ikasturtean. Institutuak hauei zein beste ikasleei diplomak banatuko dizkie ekainaren 29an, 19:00etan, Herriko Antzokian egingo duten ikasturte amaierako ekitaldian.



SANMIGUEL



“Sano banago eta bertsoan gustura jainkoak baino ez nau isilduko”

► **GREGORIO LARRAÑAGA ‘MAÑUKORTA’** BERTSOLARIA

Jainkomendi auzoko Mañukorta Baserrian jaiotako bertsolaria da Gregorio Larrañaga (Markina-Xemein, 1943). Bere baserriaren izena hartu zuen goitizenez eta hala ezagutzen du jendeak. *Bertsonajea* deitu dio Xabier Amurizak berari buruz idatzitako liburuan. *Mañukortaren* pentsamoldeko bertsolaririk bertso zirkuitoan inoiz ez dela ibili dio, “ezta, oro har, giza zirkuitoan ere”. Bere bizitzako ibilbidearen berri eman zigun guri *Mañukortak* San Migel-Aiastiako elkartearen, joan zen zapatuan, auzotarrek omenaldia egin aurretik. Etxekotzat daukate han eta baita Elgoibar zein Mendaroko beste hainbat txokotan. Bateko zein besteko kontuak ahaztu dituela esan arren, kontatu zizkigun hainbat.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ **Bertsolaria, txiste kontalaria, artzaina, Danobateko zein Cikautxoko langilea, Bertsonajea... makina bat etiketa jartzen dizkizu jendeak. Zure burua nola aurkeztuko zenuke zuk?**

Ni zein naizen ondo erakutsita dagoela uste dut: gizon umoretsu bat, eta han-

dik gora zer eskatuko dugu ba! Eskolan askorik ez nuen ikasi, baina ikasi nuen hori ondo, ni neu moldatzeko adina. Ikasteak berak zenbat balio duen ez dakit. Entzun dut milaka sendagile opaketetako azterketak egiten aritu direla. Denak karrera handiak amaitu, aprobak

egin eta seguru asko txarrenak joango dira aurrera, entxufeak egoten dira-eta. Hortaz, gehiegi ikasten gazte denboran burua asko galtzerik ez dakit merezi duen.

Bertsolari moduan ezagutzen naute gehienek, noski, eta bertsoan ari nai-

zela aurrean jendea niri entzuten gustura eta ondo pasatzen dagoenean hazi egiten naiz. Zenbat eta aurkari gogorragoa izan orduan eta borrokarako gogo gehiagorekin aritzen naiz. Batek adarra jo eta besteak nola ez ba erantzun! Entzuten dagoenak hori nahi izaten du gainera.

♦ **Mañukorta da zure baserria eta handik gertu bat egiten dute Elgoibar, Mendaro eta Markinak. Zein herrirekin duzu harreman gehien?**

Arnoate baserri ospetsu bat bada, lehen erromeriak egiten zirena, eta baserri horren erdia Gipuzkoan dago eta beste erdia Bizkaian. Baserriaren aurre aldean Markina, Elgoibar eta Mutriku arteko muga markatzen duen harri bat dago, nahiz eta orain Mutriku baino Mendaro izango den. Handik 800 metro ingurura dago gure baserria. Harreman hobea batekoekin edo bestekoekin ez. Ni denean ibiltzen naiz, eta ustez aurpegikera txarrik inori jarri gabe, gainera. Aberastasun bat bada hori, diruz ordaindu ezin dena.

♦ **Elgoibarrekin, baina, urtetako harremana baduzu, ezta?**

Bertsotako harremana ezezik Elgoibarran lan egindakoa ere banaiz, bai. Lehenengo Marinaran egon nintzen soldadu bi urtez. Gero dirurik ez neukan eta Ameriketara joatea pentsatu nuen. Aitak orduan zera esan zidan: "zu joan lasai, ikusi eta gaizki bazau de etorri, hau hemen egongo da eta". Hitz ederrak dira horiek aita bati entzuteko. Sei urte egin nituen han. Hango bizimodua gu ibili ginen moduan ibiltzeko ez zen. Hala ere, amerikar egin nintzen ni. Hiru urtez han bizi eta nagusiak ondo portatu nintzen bertako egin ninduen legez eta Amerikako bandera zin egin nuen. Berriz joatekotan ere egon nintzen, izan ere ondo irabazten zen, baina hemengo bizimodua, Euskal Herriko ikutua, etxea... ez zegoen han eta gorputzak hori eskatzen zidan.

Hona itzulita Danobaten hasi nintzen lanean eta bertsotan ere asko ibiltzen nintzen.

♦ **Danobatetik Cicautxora joan zinen.**

Danobaten lanik ez eta Cicautxora

joan nintzen erretiroa hartu arte. Ondo portatu ziren gainera nirekin. Bertsotara joateko orduak hartu behar banituen ebentualak nire ordezkari eta niri joateko aukera ematen zidaten, auzoz-auzo eta herriz-herriz ibili behar denarentzat sekulakoa da hori. Hasieran, egun guztia kantuan pasa eta gaueko hamarretan Markinara lanera joan beharra, sasoiak izan arren, egur handia zen. Baina gerora zein egun libre behar nituen esan eta uzten zizkidaten.

Erretiroa ere uste baino lehen hartu nuen. 50 urte bete nituenean lantegiko bulegora joateko esan zidaten eta noiz jubilatu nahiko nukeen galdetuta "gaur bertan" erantzun nion. Baina 65 urtera arte jarraitu beharko nukeela esan zidaten. 58 urterekin, ordea, aurretiko erretiroa hartu nuen. Niretzat loteriarik izan bada hori izan da. 58 urterekin diru faltarik ez, osasun ona, herriz herri kantuan dabilen gizonari hori ematea loteria garbi tokatzea da. Asko behar bada ez, baina lagun artean ibiltzeko adina aurreratuta izatea aberatsa izatea ikusten dut nik.

"Elgoibar eta Mendaro inguruko auzo denetan ibilitakoa naiz eta etxeko sentitzen naiz"

♦ **Elgoibartik lanera Markinara joan arren, bertsotara maiz etorritakoa zara zu Elgoibarrera. Eta San Migel-Aiastira zer esanik ez.**

Nik 75 urte egin behar ditut abenduaren 1ean eta 10 urte nituela etorri nintzen lehenengoz. Aitona zenak anaia zeukan San Migelgo Unamuntza baserrian. San Migel egunez gonbidatzen gintuen eta hona etorri nintzen aitonari eskutik helduta. Bertsotara ere San Migel egunean 40 urtean-edo etorri naiz, bai, lehenengo Azpillaga zenarekin eta Ziarbarekin gero. Auzo honetan etxekotzat naukate.

Aurten niri egin didaten bezala, orain dela 20-25 urte hemengo trikitilariari egin zieten omenaldia San Antonio egunez. Azpillaga eta Mugartegi zirenak eta ni egon ginen orduan kantuan eta ordutik urtero etortzen naiz. Jaialdiren baterako-edo beste hitzorduren bat aurrez hartuta ez badaukat behintzat beti etorriko naiz.

Elgoibarko feriara ere urtetan etorri izan naiz, azken Gabon Zaharretan belauetako minarekin nintzelako kale egin banuen ere.

San Migelera jaietan ezezik sarri etortzen naiz, Mendarora ere astean pare bat aldiz lagun artean afaritxo bat egin eta kontuak esatera, denborapasa. Usatorrera ere astelehen eta asteartetan, lagun nituen lehengoak eta baita oraingoak ere jatorrak denak. Auzo denetan ibilitakoa naiz eta bertako etxeko naiz, sendiko harremana dut denekin.

♦ **Inguru hauetan hainbeste ibilitakoa izanik kontatzeko pasadizoak izango dituzu, ezta?**

San Migelen formal ibilitako egunak baditut, gustura ibilitakoak ere eta mozkor galantak harrapatutakoak ere bai. Pilotari baten omenaldian goizeko bostak arte hemen egon, autoa martxan jarri eta seiretarako lanera joan beharreko egunik ere izan da. Tokatu egiten dira eta.

♦ **Parrandak, bai, baina entzun dugu harrijasotzen ere ibili zirela noizbait.**

Sariketa bat egon zen San Migelen. Goizeko ordubietan harri bat ekarri zuten Marianoren tabernaren aurrera. Bigoinek eta Irnasok jokoa egin zuten batek bestea pikatzeko eta nik ere altsatu nuen baita esku bakarrarekin ere 100 kiloko harria. 19 urte nituen eta orduan edozer gauza egiteko gai nintzen korrika apustua balitz egingo nuke, txingak eraman ere...

♦ **Kirolean lehiari aritzeko prest eta bertsotan ere txapelketetan ibilitakoa zara. Txapelketa askotan?**

Bai Txapelketetan ibilitakoa naiz, baina azken 20 bat urtean ez dut parte

hartu. Orain dela lau bat urte Zarauzko kopla txapelketan bai, eta gustura gainera, baina hura beste giro batekoa zen. Preparatu izan banintz bertsoan egingo nuke pila bat aurrera. Doinu batzuk ikasi eta ordurako materiala soberan banuen baina... Hala ere, urte haietan nik adina jaialdi egindakorik ez zen izan. 200era iritsitakoa naiz eta ez inguruan bakarrik, Nafarroako herri txiki gehienak pasatuta, Bizkaian, Gipuzkoan... denean. Denetariko saioak eginenez, bertso afarietatik hasi eta jaialdi handietara. Orain lau bost bertsoari saioak izaten dira baina orduan zortzi-koak ere. Niri ez zitzaizkidan horrelako handiak gustatzen, nik nahiago Ziardarekin San Migelen kantatzea bazkalostean sukaldariari, zerbitzen ibili denari... bertsoak botaz.

Bertsotan aritzeko berezkoa behar da guk bezala edozer gauzari kantatzeko eta gustura kantatu behar da ez derrigortuta.

♦ **Eta leku berezirik baduzu bertsoarako?**

Garai batean Amallo, han ibiltzen nintzelako asko, baina orain ez. Edozein herritako jaietan jubilatuen egunean ere gustura jarduten naiz. Mezatan abestu eta gero bazkalostean bertsoan, txistek kontatzen edo dantzatan ere bai. Badira emakumeak nirekin dantza ondo egiten dutenak, ni ere dantzari ona izan naiz bai soltean eta baita lotuan ere.

“Badira emakumeak nirekin dantzan ondo egiten dutenak. Ni ere dantzari ona izan naiz”

♦ **Bertsolari gazteekin ibiltzen al zara bertsoan?**

Askorekin ez, ez didatelako deitzen, izan ere, ezberdina da bertsokera ere, baina sagardotegiren batzuetara-eta joan izan naiz. Sarasola sagaardotegian, esaterako, 36 urtean hutsik egin gabe joan izan naiz Lazkao Txikikin hasita eta aurten txapela eman didate eta datorren urterako ere prest. Horrelakotan gainera badira gauza batzuk zaharragoak hobeto dakizkigunak eta hori ondo egoten da

Bertsolari gazteak asko dabilta orain eta hemendik aurrera baliteke noizbait esatea San Migeletan gazte batzuk nahi dituztela kantarako. Gurekin ere nekatuta egongo dira agian, batzutan berdin samarrak kantatzen ditugu-eta. San Migel egunean santua eta udazkena... Baina niri ez etortzeko esan arren ni etorri egingo naiz, ez bertsoara baina bazkaldu, soinua entzun, dantza egin... Behintzat bizipoz honekin.

♦ **San Migelen omenaldia egin dizute. Pozez hartuko zenuen, ezta?**

Ondo hartu dut bai. Borondatez egindakoa da eta nirekin pentsatu du-

tenez nik esker onez jaso dut, oso gustura. Sanmigeldarrak ondo ezagutzen ditut eta tratu ona dut beraiekin. Izan ere bertsoari izatea ez da bertsoan egitea bakarrik jendearekin harremanetan jakin behar da. Herrietara iritsi eta jendeari kasu egin, horrek asko balio du.

♦ **Noiz arte jarraitzeko asmoa Bertsotan?**

Gaitz bat etorritz gero edo nerbioengatik-edo komeni ez bazait agian egun batetik bestera utziko nuke. Baina sano banago eta bertsoan gustura jainkoak baino ez nau isilduko. Hainbeste urtean herriz-herri, erretiratuen bazkarietan, sagardotegietan haiek nahi badute nik jarraituko dut nire bertsoak entzun nahi dituenari kantuan.

SANMIGELDARREK ESKER ONEZ

*Zuk San Migelen kanta dituzu
makina bat bertso sorta,
umoretsu ta sakona baita
zure barneko errota.
Auzo honetan maite zaitugu
inork ez zaitu gorrota.
Denagatikan mila esker ta
zorionak Mañukorta.*

Jabier Arrizabalaga Ziarda



Mañukortarekin batek baino gehiagok atera zuen argazkia San Migelen. Zuhaitz Gurrutxagak eta Ziardak, baita auzoko neskek ere.

Mendaroko biztanleen %39,80k erabiltzen du kalean euskara eta gazteak dira gutxien hitz egiten dutenak

Euskaraldia egitasmoa aurkeztu dute Mendaron asteen. Euskararen erabilera sustatzea da Euskaraldiaren helburu nagusia eta horretarako bultzatuko da besteak beste euskaldunek beti lehen hitza euskaraz egitea. Herri bakoitzean hamaikako talde bana osatzen ari dira euskararen aktibazioa bultzatu eta ekimenaren gidari izateko. Mendaron, aurkezpenean egin zuten herritarren parte hartzea sustatzeko eta hamaikakoa osatzeko lehen deia.

Mendaroko euskararen ezagutza eta erabilera datuak aurkezteko ere baliatu zuten aurkezpena. 2017an egin ziren kale erabilera neurketak eta batez beste biztanleen %39,80koa da erabiltzailea. 64 urtetik gorakoak dira gehien erabiltzen dutenak, %48,00; ondoren 2 eta 4 urte arteko umeak, %44,10; 25 eta 64 urte arteko helduek %38,80; eta gutxien 15 eta 24 urte arteko gazteek %9,80.

Ezagutzari dagokionez, 2016ko datuen arabera, mendarorren %70,7koak daki euskara, eta 2011ko neurketetatik (%68,9) pixka bat gora egin badu ere aurrekoetatik izan da jaitsierarik. Euskara lehen hizkuntzatzat dutenen kopuruak etengabe egin du behera horren adierazle da 1991n %70,1ekoa zela kopurua eta iaz 47,82koa eta neurraldi guztietan jaitsi dela. Etxeko hizkuntza euskara den ere neurtu dute eta hemen ere jaitsiere egon da. Aurreko neurketatik (%40,2)oraingora (%39,35) gutxi jaitsi bada ere, 1991n kopurua %64,3koa zela hartu behar da kontuan.

Datu hauek guztiak kontuan hartuta euskararen erabilera sustatzeko Euskaraldia ekimenean parte hartzera gonbidatu nahi dituzte mendaroar guztiak, ahobizi (ahal den guztietan euskara erabiltzeko prest dagoena) edo belarriprest (euskara ulertzen duena) jarrerak erakutsiz.

'Ameli, ipuin jostune' ikuskizunarekin bukatuko da 'Tertuliak' programa

Tertuliak programa amaitzeko ekitaldi berezi bat prestatu dute antolatzaileek, Elgoibarko Izarrak, AEK euskaltegia, Udal Euskaltegiak eta Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Ipuinak musikarekin jantzita entzuteko aukera izango da *Ameli, ipuin jostune* ikuskizunean, ekainaren 28an, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera libre eta doakoa izango da. Euskararen erabilera sustatzeko mintzapraktika programa da Tertuliak. 2017-2018 ikasturtean 48 lagunek eman dute izena, eta 10 tertulia-talde osatu dira. 37 ikasten aritu dira eta 11 laguntzen eta horien %82 emakumezkoa eta %18 gizonezkoa. Ikasturtea berbetan eman ondoren, saio honekin entzuten gozatuko dute.

Lizarrako larrain dantza ikasteko bi saio egingo dira Elgoibarren

Haritz Dantzari Taldeak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak Lizarrako larrain dantza ikastaroa antolatu dute. Ekainaren 30ean eta uztailaren 14an izango dira saioak 10:30etik 13:00etara, Musika Eskolako dantza gelan. Izenematea ekainaren 26a baino lehen harrerara joan eta 20 euro ordainduta egin daiteke. Ikastarorako, gutxienez, 10 laguneko taldea osatu beharko da.

Baionako musikarien eta herritarren elkartasuna jaso du Joseba Olazabalek, 'A-8 autobideko biolinista'-k



Joseba Olazabal mendarorrek biolina jotzen zuten protesta domekan A-8 autobide ondoan, Mañuska parean, Olazabal maiz egoten den lekuan, baina oraingoa ez bakarrik. Baionatik Mendarora, Paxkal Irigoien musikariaren ekimenez, Olazabali elkartasuna azalduz etorritako lau musikari izan zituen lagun pantaila akustikoak jartzeko eskaeran. Baionako lagunenez gain, elkarretartzean Mendaroko Artañola aita-alabek ere jo zuten biolina eta hainbat herritarrek ere bat egin zuten protestarekin. Autobidetik pasatzen ziren autoen eta kamioien zaratak biolinaren soinu goxoa estali zuten sarritan, eta hori da, hain zuzen ere, Olazabali traba egiten diona.

June Loidik Zuazo eskubaloi taldean jokatu du, Sanlok lagata



Emakumeen eskubaloiko goreneko mailan arituko da hurrengo denboraldietan June Loidi Etxaniz. Sanloko 18 urteko jokalaria elgoibartarrak Espainiako Ohorezko Mailan diharduen C.B. Zuazo taldean lagata jokatu ditu hurrengo lau denboraldiak. Zuazok zazpigarren postuan amaitu du aurten Liga Guerreras Iberdrola txapelketa. Sanlok zorterik onena opa dio Loidiri, "bai profesionalki eta bai pertsonalki" Barakaldon hasiko duen ibilbide berrirako. Zuazorekin hasi baino lehen beste erronka handi bat izango du June Loidik, jubenil mailako Munduko Txapelketan parte hartuko baitu Espainiako selekzioarekin. Polonian jokatu du Munduko Txapelketa, abuztuan.

Nerea Sasiainek Espainiako senior mailako txapelketarako gutxieneko marka lortu du

Asteburu oparoa izan da Mintxetako kideentzat. Aileta elgoibartarrek Espainiako Atletismo Txapelketa absoluturako gutxieneko marka bat, Gipuzkoako Txapelketan zilarrezko domina bat lortu, eta bost marka pertsonal ondu dituzte. Nerea Sasiainek lortutakoa nabarmendu behar da guztien artean. Espainiako Kluben Arteko Ohorezko Mailako proba batean lehiatu zen Valladoliden, Bidasoa atletismo taldea ordezkatzuz, "Bidasoaren filiala da Mintxeta A.T.", eta ia segundo erdian ondu zuen bere marka pertsonala 400 metroko lasterketan. Bosgarren postua lortu zuen eta 56 segundo eta 22 ehunekoan osatu zuen proba. Marka horri esker, senior mailako Aire Libreko Espainiako Atletismo Txapelketan parte hartzeko aukera izango du, 56.40 baitzen gainditu beharreko gutxieneko marka. Uztailaren 21 eta 22an jokatu da Aire Libreko Espainiako Atletismo Txapelketa Getafen.



Era berean, hogeitazpikoen Gipuzkoako Atletismo Txapelketa jokatu zuten ekainaren 16an, Donostian. Mintxetako kide Ander Armendiak 400 metroan lasterka egin zuen eta bigarren postua eskuratu zuen, 52 segundo eta 28 ehuneko denbora eginda. Zilarrezko domina irabazteaz gainera, bere marka pertsonala ondu zuen antxitxikari elgoibartarrak.



Igor Lizarralde, urteko entrenatzaile onena

Gipuzkoako Eskubaloi Galan 2017-2018 denboraldian nabarmendu diren jokariak eta entrenatzaileak saritu zituzten Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak, joan zen ekainaren 13an Andoaingo Bastero Kulturgunean egin zuten ekitaldian. Igor Lizarralde elgoibartarrak urteko entrenatzaile onenaren saria jaso zuen Tecnifuelle taldearekin eginiko lanaren aitortzan. Euskadiko Txapelketa irabazteaz gainera, Espainiako Txapelketako Zortziko Finala jokatzera ailegatu zen Tecnifuelle. Laugarren egin zuen Elgoibarren jokatu zen txapelketan.

Sentsazio onak berreskuratu ditu Maite Maiorak T3T mendi maratoian

Zegama-Aizkorri bizi izan zuen "amesgaiztoa" eta gero, lehiaketetara itzultzeko lasterketa asko zituen aukeran Maite Maiorak, baina etxetik gertukoa aukeratu du, Tolosaldeko 3 Tontorrek (T3T) mendi maratoia. Sentsazioak berreskuratzea zen Maioraren ardura nagusia, eta indarrez jarraitzen duela ikusi du. Proba nagusitasunez irabazi eta hamasei minututik gorako aldea atera zion helmugan bigarren emakumezkoari, Maite Etxezarretari. Bihar (ekainak 23) Fuente De-ko kilometro bertikalean parte hartzeko asmoa du Maiorak.



Arg.: ataria.eus

Lehia politak ikusi ziren Lagunak Pilota Txapelketako finaletan



Lagunak Pilota Txapelketak baditu irabazleak. Aurtengoan 32 pilotari gaztetxo aritu dira lehian eta ekainaren 14an jokatu zituzten finalak, Kalegoen plazako frontoian. Aurre benjamin mailako finalean, hau da, zortzi urteko pilotarien artean, Oier Izagirrek 16-6 irabazi zion Julen Jausorori. Benjamin mailako (9-10 urte) finalean 16-13 irabazi zion Mikel Berguak Eneko Goikoetxeari, eta alebinen lehen urteko pilotarien arteko finalean Peru Bereziartuak 16-4 irabazi zion Beñat Iturriagari. Eskuz banakako finalen ostean, binakako finalak jokatu zituzten bigarren urteko alebinek eta infantilek. Lehen neurketan, Iker Izagirrek eta Beñat Basurtok 18-12 irabazi zieten Eneko Etxanizi eta Ibai Floresari. Bigarreanean Danel Iriondok eta Alex Berguak lau tantoan laga zituzten Beñat Jurado eta Iban Arrizabalaga.

Urrezko Pioleta irabazteko hautagaien artean da Aritza Monasterio mendigoizalea

Mendiko ekintza handi eta gogoangarriak saritzen ditu Piolet d'Or edo Urrezko Pioleta izeneko sari prestigiotsuak. 2018koa irabazteko 58 mendi jarduera daude hautagaien zerrendan. Horietako bat da Perun bizi den Aritza Monasterio elgoibartarrak eta Alik Berg kanadarrak Peruko An-



deetako Hualcan mendian (6.122 m.) zabaldu zuten 1.000 metroko bidea, 2017ko uztailean. *Nadie sabe nada* (ED1, M6, 85º, VI) izena jarri zioten inork igo gabeko hormatarrean zabaldutako bide berriari. Ekainaren amaiera aldera jakinaraziko dute Urrezko Pioletaren irabazlea zein den. Sari banaketa ekitaldia, baina, irailaren 20tik 23ra bitartean egingo dute Polonian, Ladak Mountain jaialdiaren baitan.



Nahaste Borraste proba ekainaren 29an jokatu da

Nahaste Borraste proba herrikoia 34. edizioa ekainaren 29an jokatu da, 19:00etan. Izena emateko, proba hasi aurretik joan beharko da Kimetz elkartera. Partaideek hiru probatan lehiatu beharko dute: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, ondoren 400 metro egingo dituzte korrika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka. Probako dominatzaile nagusiak diren Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez gailendu ziren iaz. Zazpigarrenoz irabazi zuen Larizek eta hamaikagarren garaipena izan zen Lendinezentzat.

Pala Txapelketetako finalak, gaur

Idoia Arrillagak eta Eva Ibarrolak Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpen aurka jokatu dute emakumeen binakako pala txapelketaren zazpigarren edizioko finala, gaur, 18:00etatik aurrera, Kalegoen plazan. Gizonezkoen hirugarren edizioko finala, berriaz, Gorka Lizarraldeak eta Markel Portuk jokatu dute Asier Larrañagaren eta Iraitz Ferreiraren aurka.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak (etxebizitzak, bulegoak, ikastetxeak, hoteletako logelak...) egiteko prest. ☎ 629 903 512

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka nahiz etxeko langile moduan. Legezko egoeran nago. ☎ 634 709 827

Edozein lan egingo nuke: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak... Orduka nahiz etxeko langile moduan. Gavez ere bai. ☎ 631 891 709

Lana behar dut. Edozein lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen jardun naiz eta badut esperientzia. ☎ 631 556 507

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. ☎ 631 565 350

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Ospitaletan orduak pasatzeko, orduka lanean aritzeko edo etxeko langile moduan jarduteko gertu. ☎ 642 249 818 (Gloria)

Adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat, baita garbiketa lanetan ere. ☎ 686 077 316

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat eta berehala hasteko gertu. ☎ 631 624 304

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 631 532 426

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 680 808 125

Sukaldari laguntzaile eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egiteko prest. Orduka. ☎ 694 432 670

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere. ☎ 612 216 458

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Orduka, aste bukaeretan edo gauetan. ☎ 632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak eta gida-baimena daukat. ☎ 689 571 882

Emakume euskalduna prest adinekoak eta gaixoak zaintzeko. Arratsaldez. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako prest. Paperak legeztatuta. ☎ 688 813 569

Garbiketan zein adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia eta erreferentziak. ☎ 688 712 075

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 627 230 784

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 612 222 362

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere. ☎ 631 558 243

Eskaerak
LH eta DBHko ikasleentzako akademian lan egiteko irakaslea behar da. Interesatuek bidali curriculumak helbide honetara: akademiaelgoibar@gmail.com

Emakume edo neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume batekin egoteko. ☎ 653 715 141

Esperientzia duen zerbitzari euskalduna behar da lanaldi osorako. ☎ 943 741 230

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska euskalduna behar da. Interesatuek bidali curriculumak helbide honetara: elgoibardenda@hotmail.com

Uztailan umeak zaintzeko pertsona euskalduna behar da. ☎ 653 745 992

ETxebizitzak.....
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 790 555

Apartamentua alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

Etxebizitza salgai ONUn. Igogailua eta ganbara ditu. 92.000 euro, negozio-garriak. ☎ 661 81 60 06 (Peli)

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza salgai Elgoibarko Santa Ana kalean. 3 logela, trastelekua, garajea eta igogailua. Balkoidun etxea. Berokuntza instalazioa eginda. ☎ 688 607 655

GARAJEAK.....
Marra arteko garajea salgai pista bertzean. ☎ 696 550 356 / 653 863 482


OSPAKIZUNAK.....
Uztailaren 28rako Sigmako auzotarrek ospakizuna antolatu dute. Bazkarira joan nahi dutenek uztailaren 10a baino lehen eman behar dute izena. 47 € sartu behar dituzte Laboral Kutxako ES97 3035 007 21 0071135348 kontu zenbakian.

BESTELAKOAK.....
Urrezko katea aurkitu dut kalean, gurutze eta dominarekin. Galdu duenak, deitu. ☎ 626 686 355 / 943 742 233

Belarritako bat aurkitu dut kalean eta udaltzainen bulegoan utzi dut.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Instituto Vasco de Administradores de Empresas


Gure komunitatean argi-patio bat dago jabe batek baino erabiltzen ez duena. Jakin nahi nuke nori dagokion patio horren mantenua, komunitateari ala erabiltzen duen jabeari.

Argi-patioetan eta terrazetan irizpide berdinak hartu behar dira kontuan mantenuari dagokionez (nahiz eta bakar batek erabili), baita elementu komuna izendatzeari buruz ere.

Terraza eta patioen konponketa eta mantenu gastuak ezberdinak izango dira. Kontuan hartuko da egiturarena den (eraikuntza edo mantenu akatsengatik), edo erabilerarena den konpondu beharreko kaltea. Beraz, komunitateak ordaindu beharko ditu egiturari dagozkionak eta kalteak erabilerak eragindakoak badira patio edo terrazaren erabiltzailea arduratuko da gastu horiek ordaintzeaz.

Hala dio legeak elementu komunak modu pribatuan erabiltzen dituzten jabeen betebeharez ari denean.


Aholkua: Argi-patioaren mantenu eta garbiketaren ardua eskusiboki erabili eta besteei erabiltzen uzten ez dien jabe horri dagokio. Beraz, ezin dio komunitateari derrigorrez eskatu betebehaz hori egitea, ezta patioa erabiltzen duen jabeak gaizki edo ardurarik gabe erabili duenean patioan sortutako kalteez komunitateari arduratzea ere.



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nora**, 2 urte bete dituzulako. Zorionak, amama **Maria Luisa** ere. Gaur zuen urteguna da. Ondo pasa, familia guztiaren partetik.



Zorionak, **Ander**, 7 urte! Txapeldun! Beti alai, beti dirdiri, beti gure bizipoza.



Zorionak, **Sara**, printzesa! Jadanik urtebete. Guraso, aittitta-amama eta familiakoen partez muxu handi bat. Askomaite zaitugu.



Zorionak, **Sara**, datorren asteartean 3 urte beteko dituzulako. Muxu bat gurasoen partez.



Zorionak, **Gorka**, ekainaren 24an 4 urte beteko dituzulako. Muxuak, familiakoen eta bereziki Naroaren partez.



Dagoeneko 6 urte! Zorionak, **Nora**! Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, bikote! Aurten ere ekaina berezia, maitiak, zuen urtebetetze egunak ospatzen. Patxo goxo pila biontzat!



Edozein aitxakia balekoa da zuek zoriontzeko. Mundialak zarete!



LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademia lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

akademielgoibar@gmail.com



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekean edo www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

barre.publi@elgoibarkoizarra.eus

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

RRP-183112

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

**URETARAKO
TAPOIAK
NEURRIRA**

**IGERITARAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK**

ZATOK INFORMATZERA!

LAN-POLTSA: BARREN ASTEKARIA

Ordezkapenak egiteko lan-poltsa osatzen ari gara:
KAZETARIAK, KOMERTZIALAK ETA MAKETATZAILEAK

Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidal dezakezue:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Kalebarren plaza, 2

20870 ELGOIBAR

943 744 112



BARREN

22 BARIKAKUA

18:00 Binakako pala txapelketako finalak. Kalegoen plazako frontoian.

18:30 Argazki erakusketa: *Incognita Patagonia*. Eñaut Izagirre Estibariz. As-telehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Ekainaren 30era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea.

19:00 Elgoibarko Sagardo Eguna. Antolatzailea: Atabal Danborrada Elkarte. Maalako parkean.

19:00 Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde finkoen ikasturte amaierako kontzertua. Herriko Antzokian.

20:00 Gazte asanblada, ostiralero. Sutegixa gaztetxean.

23 ZAPATUA

11:30-12:30 Zunba saioa kalegoen plazan.

11:30-13:00 Mural kolektiboa. Kalegoen plazan.

13:00 Giza mosaikoa Sebas Etxanizen etxeratzea eskatuz. Kalegoen plazan.

25 ASTELEHENA

9:30-13:30 Udako kirol campusaren hasiera. Uztailearen 20ra arte. Antolatzailea: Kirol Patronatua. Olaizaga kiroldegian.

18:00-20:00 Emakumeentzako jabe-kuntza tailerra. Hausnarketa saioa:

Nire gorputza zaintzen dut maite dudalako, ez gorrotatzen dudalako. Doan eta irekia. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Elgoibarko Udaleko Berdintasun Saila. Elgoibarko Kultur Etxean.

27 EGUAZTENA

19:00-22:00 Elgoibarko X. Pintxo Lehiaketa. Antolatzailea: Udaleko Sustapen Ekonomikoko Saila.

28 EGUENA

19:00 Ipuinak musikarekin jantzita: *Ameli ipuin jostune*. Tertuliak programaren amaiera. Kultur Etxeko Sotoan.

19:00-22:00 Elgoibarko X. Pintxo Lehiaketa. Antolatzailea: Udaleko Sustapen Ekonomikoko Saila.

29 BARIKAKUA

18:00-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarte.

19:00 Elgoibar BHI Institutuko diploma banaketa. Herriko Antzokian.

19:00 XXXIV. Nahaste Borraste. Antolatzailea: Kimetz Elkarte.

19:00-22:00 Elgoibarko X. Pintxo Lehiaketa. Antolatzailea: Udaleko Sustapen Ekonomikoko Saila.




I. URTEURRENA

Maria Elena Crespo Landa

2017ko ekainaren 24an hil zen.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



IDOTORBEKO JAIK

Ekainak 23, 24, 28, 29, 30 eta uztailak 1

23, ZAPATUA

15:00 Euskadiko enduro moto txapelketa.

20:00 Sari banaketa.

24, DOMEKA

9:00 Euskadiko enduro moto txapelketa.

14:00 Sari banaketa.

28, EGUENA

19:00 Jaien hasiera. Txapliguak eta kanpaiak.

29, BARIXAKUA

11:00 Prozesioa eta meza.

Ondoren, salda eta txorizoa, Armueta harategiak eskainita.

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria.

22:00 Idi demak. San Pedro Saria. Parte hartzaileak: Oliden, Motxo eta Lixdro erretegia.

Egun guztian zehar, Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilariak.

30, ZAPATUA

17:00 Mus txapelketa. Izen-ematea: 25 euro bikoteko.

Gero, sari banaketa.

19:00 Trikipoteoa, Obaneuke taldeak girotuta.

21:00 Lagunarteko afaria, San Pedro elkartearen. Izen-ematea: 943 740 010.

23:00 Erromeria, Obaneuke taldearekin. Umeentzako playback berezia.

02:00 Parrillada doan, Sahatzu harategiak eskainita.

1, DOMEKA

11:00 Meza.

Ondoren, salda eta txorizoa, Goikoetxe harategiak eskainita.

12:00 Haritz Euskal Dantzari Taldea.

13:00 Bolo txapelketa

14:00 Lagunarteko bazkaria.

16:00 Umeentzako jolasak.

17:00 Rusoren zezen txikiak.

Egun guztian zehar, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK **Egunez: 09:00-20:00**
Iluntzean: 20:00-22:00
Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

22 BARIXAKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Etxeberria	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea
26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	20 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00

La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) - 943 254 410

I. URTEURRENA

Carmen Moulian Mendia



2017ko ekainaren 19an hil zen, 99 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainaren 23an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





Txistu hotsa maiz entzuten da Elgoibarko kaleetan, dantza saioen lagun, baita kalejiretan ere. *Txanbolin*-darrak txistulari familia entzutetsua izan ziren urtetan. 1850ean Roke Ansolarekin jaio zen txistulari dinastia eta izan zuen, bai, segida. Argazkian agertzen den Florencio Ansolak bost seme izan zituen eta denak izan ziren txistulari. Florencio 1903an musikari-juglare moduan hartu zuten Eibarko Udalean, 47 urtez aritu zen Eibarren txistulari eta hango txistularientzat oso esanguratsua izan zen gainera, domekero ateratzen ziren-eta kalera. Eibarren bai, baina Elgoibarren ere nola ez entzun bere txistu soinuak, semeekin aritzen baitzen kalean. Semeek, baina, 1975ean Florencio hil zenean albo batera utzi zuten txistua. Etena luzea izan da, bai, baina gaur egun bada familiakoen biderei segi dionik, Eneko Ansola Florencioren birbiloba, hain zuzen ere. Mikel Ansolak ekarri digun argazkian garai bateko txistulari familiako hiru senide ageri dira Elgoibarko udaletxeko arkupeetan hainbat elgoibartar haiei entzuten daudela. **Txistulariak ezkerretik eskumara:** Florencio Ansola (t), Bittor Ansola (t) eta Jose Antonio Ansola.



Agurne Echaniz Aramberri

2018ko martxoaren 18an hil zen, Sopelan.
Haren oroimenez, meza izango da, zapatuan, ekainaren 23an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.





Segurua da | https://



Gure enpresak ziurtatu, gure etorkizuna bermatzeko.

Enpresean zibersegurtasunaren
desafioari aurre egiteko lanean ari gara,
Gipuzkoa izan dadin lurralde lehiakor
bat, Europar desberdintasun txikiena
duen lurraldeetako bat.

ZIUR
INDUSTRIAL CYBER SECURITY
CENTRO-GIPUZKOA



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



ETXEBERRIA TANATORIOA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

2018-2019 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOKo
matrikulazio epea

Ekainaren 20tik
uztailaren 6ra

Bulegoko ordutegia:
09:00etatik 13:00etara

DBH
eta
BATXILERGOA

Giza eta gizarte zientziak

Zientziak

Artea

- Gizarte zientziak
- Humanitateak
- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika
- Artistiko musikala

943 748 397
013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus

R Euzkoak Kalitate Hezkuntzan baikara

Ondo pasau jaixetan!
Aurrez enkargatuz gero, hobe!

SAN PEDRO
J A T E T X E A
SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR

